

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroarekin harremana oso garrantzitsua da produktu bat saldu aurretik. Harreman egokiek aldaketak eragin dezakete produktu berri bat erosterakoan. Horretarako oso garrantzitsua da bezeroak harreman on batekin tratatzea eta atenditzea, horrela, eragin on bat izango dugu haiengan. Gainera, informazio zehatza, erakargarria eta argia eman behar dugu produktuari buruz gerora gaizki ulertuak ez egoteko eta dena ongi azaldua uzteko.

Aurreko guztia kontuan izanda, bezero berriak erakartzeko publizitate kanpaina sendoak erabiliko ditugu. Hau, sare sozialen bidez egingo dugu, hau da, instagram, Tiktok eta Twitterreko kontu bat irekiko dugu eta bertan informazio guztia era erakargarri batean argitaratuko dugu. Adibidez, bideo motzak eta kartel animatuak egingo ditugu. Gainera, webgune bat sortuko dugu non informazioa modu formal eta garatu batean agertuko den.

Beste alde batetik, jada dauzkagun bezeroak mantentzeko eta kopurua haziarazteko, abantaila batzuk emango dizkiegu bezero izaten jarraitzeko eta haien interesa ez galtzeko. Horren adibide, gure zaborrontzietan kontu bat irekitzeko ahalmena izango dugula. Kontuan puntuak metatuko dira eta horrekin gure proiektuan parte hartzen duten enpresetan beherapenak lortuko dituzte.

